

Hernaniko liburutegiko Liburu azoka martxan da

Euskarazko literatur solasaldiak 21ean hasiko dira eta gaztelerazkoak azaroan

Hernani. Hernaniko udal liburutegian egindako xahuketaren ondoren, hainbat liburu ikusgai izango dira datorren azaroaren 14a bitartean, bazkideek gustuko dituztenak hartu eta eraman ditzaten.

Urtero moduan, atzo jarri zuten martxan Saski-Naski liburuen azoka udal liburutegian. Ekimenaren bitartez, aspaldian argitaratutakoak baina egoera onean dauden aleak eta liburu errepikatuak, besteak beste, eskaini nahi dituzte sustatzaileek liburutegiko erabiltzaileentzat interesgarriak izan daitezkeelakoan.

Azokara hurbiltzen direnek bi baldintza bete beharko dituzte liburuak eraman ahal izateko, hots, liburutegiko bazkide txartela izatea eta aukeratutako liburuekin mailegu mahaitik pasatzea lapurreten aurkako sistema deskonektatzeko.

Literatur solasaldiak Liburutegiko kontuekin jarraituz, urte amaiera bitartean luzatuko diren literatur solasaldien egitaraua ad-itzera eman zuten atzo.

Euskarazko solasaldiei dagokienez, lehenengoa datorren asteartean izango da. Bertan, Bernardo Atxagaren Zeru horiek izango dute hizpide. Azaroaren 18an Iban Zalduaren Etorkizuna liburua aztertuko dute eta abenduaren 16an Laura Mintegiren Legez kanpo.

Gaztelerakoei dagokienez, aldiz, azaroaren 25ean Gregor Von Rezzori idazlearen Flores en la nieve idazlana landuko dute. Abenduaren 10ean aztertzeko, Ruth Klüger idazlearen Seguir viviendo aukeratu dute.

Solasaldi guztiak udal liburutegian izango dira 19.30ean hasita eta Ane Mayozen dinamizatzaileak bideratuta. Ekimenaren sustatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte liburuak irakurri eta hizketaldietan parte hartzera. >A.I.